



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

ARETO FUTBOLEKO EUSKAL BATZORDEA

2007/08 DENBORALDIA

18. ZIRKULARRA

LURRALDE SELEKZIOETAKO ARETO-FUTBOLEKO EUSKAL KOPA 18 URTETIK BEHERAKOAK ETA EMAKUMEZKOAK

Batetik, Areto Futboleko Euskal Seleksioen plangintza eta prestakuntza egokia egiteko, eta bestetik, Lurralde Seleksioak lehiakor mantentzeko, Txapelketa hau egingo da, Lurralde Batzordeei jarraiki eta ondorengo arauen arabera.

1. PARTE-HARTZAILEAK

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako seleksioek hartuko dute parte 18 urtetik beherako eta emakumezkoen kategorietan.

Bakarrik parte hartu ahal izango dute ondorengo jokalariek:

18 urtetik beherakoak: **1989/01/01** baino beranduago jaiotakoak
Emakumezkoak: **14 urte beteta** dituzten jokalaria

Seleksio bakoitzak partidaren aktan, gehienez, 12jokalarien izena eman ahal izango ditu. Hala ere, partida bakoitzaren aktan ezin izango dute eman izenik inola ere klub edo filial berean lizentzia duten 4 [jokalarik](#) baino gehiagok.

2. LEHIAKETA SISTEMA

2.1. 18 urtetik beherakoak eta Emakumezkoak

Partidu bakarreko liga sistema

Gerta daitezkeen berdinketak Euskadiko Futbol Federakundearen Arautegian ezarritako eran ebatziko dira.

Partida bakoitza bukatzean, edozein dela emaitza, penaltiak jaurtiko dira irabazlea egon arte. Emaitza hau kontuan hartuko da sailkapen orokorrean egon daitezkeen berdinketarekin bukatzeko azken aukera gisa, Partiduak 40 minutukoak izango dira: 20 minutuko bi zati, eta 5 minutuko atsedenaldua.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

Zirkular honetan aurreikusten ez den guztian Areto Futboleko indarrean dagoen arategian xedatutakoa ezarriko da.

3. EGIAZTAGIRIAK

Euren jokalaria ematen dituzten klubak lana errazteko, Lizentziak aurkeztu ordez "zerrenden" bidez egingo dira egiaztatgiriak. Federazio bakoitzak egingo ditu, eta agertuko diren datuak hauek izango dira: jokalaria izen-abizenak, dortsala, jaioteguna, NAN eta klubaren izena.

Ezin zaio izena eman partidaren aktan izena emateko zerrendetan agertzen ez den jokalaria.

4. SARIAK

Kopa, irabazten duen selekzioari

5. DIZIPLINA BATZORDEA

Diziplinazko kontuak, nahiz txapelketan egon daitezkeen erreklamazioak, Areto Futboleko Euskal Batzordeak xede horretarako izendatutako Epailak ebatziko ditu lehen auzialdian.

Hala jakinarazten zaie Lurralde Federazioari eta Areto Futboleko Arbitroen Euskal Batzorde Teknikoari, jakin dezaten eta dagozkion xedeetarako.

2007 azaroak 22, Bilbon


JON ANDER GAMBOA AGUIRRE
Secretario General



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

EGUTEGIA

06.12.07

09.30	1.- EMAKUMEZKOAK ARABA - BIZKAIA
11.15	1.- 18 BEKO ARABA – BIZKAIA
13.00	EMAKUMEZKO GIPUZKOA - GALTZAILE 1
16.00	18 BEKO GIPUZKOA – GALTZAILE 1
17.45	EMAKUMEZKOEN FINALA
19.30	18 BEKO FINALA

LEKUALUGAR:

Pol. Mendizorroza (Vitoria-Gasteiz)